

183/2013 FORU AGINDUA, urtarrilaren 25ekoa, Hidrokarburoen gaineko Zergaren autolikidaziorako 581 eredua onesten duena (BAO Otsailaren 1ekoa)

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 33. artikuluan ezarritakoaren arabera, Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak, tartean Hidrokarburoen gaineko Zerga, itundutako zergak dira, Espainiako lurraldean ezarritako arau formaletarako xedaturiko araupetzearen menpe egongo direnak, betiere foru aldundiek zerga berezien aitorten ereduak onesteari eta dirua sartzeko epea ezartzeko duen eskumenari kalterik egin barik. Epeok salbuesteko eskumena foru aldundiei dagokie, sortzapena EAEn gertatzen denean.

Estatuaren 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legeak, azken xedapenatariko hamabigarrenean, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Hidrokarburoen gaineko Zergan sartu du Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga.

Hala, Hidrokarburoen gaineko Zergak egitura berria duenez, zerga horren autolikidazioaren eredia egokitu beharra dago. Aurrerantzean 564 zenbakia barik 581 zenbakia izango du, baina 564 ereduaren erreferentziak iraun egingo du, gerta litekeelako likidatutako zergaldien gaineko aitorten osagarriak edo zuzentzaileak aurkeztea.

Horrenbestez, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua. 581 eredia onestea

1. Onetsi egiten da Hidrokarburoen gaineko Zergaren autolikidaziorako 581 eredia, foru agindu honen eranskinean dagoena.
2. Hidrokarburoen gaineko Zergaren subjektu pasiboek 581 eredia aurkeztu behar dute, inportazioa egiten denean izan ezik.
3. Zergaren sorrera aldian Estatuko tasa bereziarekin kargatutako produktuak bidali badira beste autonomia erkidego edo lurralde historiko batzuetara, erkidego edo lurralde horietariko bakoitzeko 581 eredu bat aurkeztu beharko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari.
4. Fabrikazio Zerga Berezien kargapeko produktuak jasotzeko establezimendu edo toki bakoitzeko eta xede bakoitzeko aurkeztuko dira, oro har, autolikidazio ereduak eta, hala denean, kuota likidoak aldi berean ordaindu, hain zuzen ere likidazio aldian eginiko eragiketengatik.
5. Ogasun eta Finantza Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko Burutzak baimena eman diezaieke Bizkaian kokaturiko establezimendu bat baino gehiago dituzten eta fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboak diren guztiei autolikidazioa zentralizatzeko eta establezimendu horietan sortutako zerga berezien kuotak aldi berean ordaintzeko. Horrelakoetan, autolikidazioarekin batera DDC-L32 eredia aurkeztu beharko da.
6. Ez da beharrezkoa izango autolikidazioak aurkeztea izakinik edo fabrikazio zerga berezien xedeko produktuen mugimendurik ez denean likidazio aldian.

7. Alabaina, zerga tasak aldatu direla-eta beste zerga tasa batzuk aplikatu behar direnean likidazio aldian, subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu beharko dute nahitaez, eta kuotak ordainduko dira zerga tasa bakoitza aplikatu deneko epealdi bakoitzean.
8. Soilik barnekoa ez den lurralde eremu komunitarioko produktuak jaso edo ematearen ziozko Fabrikazio Zerga Berezien subjektu pasiboak direnean, ez dago zertan autolikidazioak aurkeztu produktuak jaso edo eman direneko likidazio aldietan.

2. artikulua. 581 eredia aurkezteko epea.

1. Hauexek izango dira autolikidazioak aurkezteko epeak eta likidazio aldiak eta, hala denean, emaitzako kuotak aldi berean ordaintzekoak:
 - Likidazio aldia: hilabete natural bat.
 - Aurkezteko epea: sortzapenak izan diren azken hilaren ondorengo lehen hogeita bost egun naturaleko epea, betiere uztaileko likidazio aldikoa izan ezik. Azken epealdi hori abuztuan eta ondorengo iraileko lehen hogeita bost egun naturalen barruan izango da.
2. Autolikidazioak eta, hala denean, DDC-L32 banakapen-ereduak aurkezteko, Ogasun eta Finantza Sailak ezarritako bitarteko eta prozedura elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliko dira.

3. artikulua. 581 eredia aurkezteko modua.

581 eredia bide telematikotik soilik aurkeztuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren autolikidazioa 2012ko abenduaren 31n.

Zergaren eremu objektiboko produktuen txikizkako salmentak 2012ko abenduaren 31n egintzat joko dira baldin eta egun horretan produktu horiek publikoarentzako txikizkako salmentarako establezimenduetan badaude, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzko ekainaren 28ko 6/2002 Foru Arauaren 4. artikuluko 2. idatz-zatian definiturik dauden horietan, salbu eta aipatutako produktuei aplikagarri bazaie hidrokarburoen gaineko Zerga eteteko araubidea.

Aurreko lerroaldean xedatutakoari dagokionez, betiere produktuen txikizkako salmentak Bizkaiko Lurralde Historikoan egintzat joko dira publikoarentzako txikizkako salmentarako establezimendua lurralde horretan badago.

Zergaren subjektu pasiboek 2013ko apirileko lehenengo 25 egun naturaletan aurkeztu beharko dituzte, 569 eredian, autolikidazioa eta sorrarazitako kuoten zerrenda, baita, hala behar denean, salbuetsitako eragiketena ere, aurreko lerroaldeetan adierazitakoari jarraituz, eta autolikidazio hori 2012ko azken hiruhilekoko autolikidaziotik bereiz izapidetuko da.

AZKEN XEDAPENA

1. Foru agindu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.
2. Hidrokarburoen gaineko Zergaren autolikidaziorako 581 eredia 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazio aldietarako erabiliko da.

ERANSKINA

581 Eredua

[581 eredia](#) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean